

# noaua



**Sagardo Eguna hemen da**

**Udal hauteskundeak 2023:  
Alkategaiekin solasean**



**Txalapartaren II. Festa  
aldaera zahar eta berrien  
erakusgarri aparta izan zen**





**USURBIL**  
O P T I K A

**4** Urteko  
Garantia

Interes  
Gabeko  
Finantzaketa


\*Banketxeak  
onartzean

Entzumen  
azterketa  
**DOAN**

Entzun  
telebista  
eta mugikorra  
zure audifonoetan

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL [usurbiloptika@hotmail.com](mailto:usurbiloptika@hotmail.com)



**PILARIK  
GABEKO**

TEKNOLOGIARIK  
AURRERATUENA



**Albania**

**IRTEERA 2023ko iraila**

Noaoak gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • [info@noaoa.eus](mailto:info@noaoa.eus) • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



**Maite  
duzun  
Gipuzkoa**

Duintasunez  
zaintzea  
errealitatea  
izan dadin.

*Zaintza duintzeko  
ahalegin publikoa.*

**EGINGO  
DUGU.**

**ehbildu**

## Albisteak iruditan

## Garbigune mugikorra martxan da

**E**txeetako hondakinen berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko aurrez 34.500 eurotan erosia zuen (Foru Aldundiaren 16.400 euro inguruko laguntzarekin) garbigune mugikorra martxan jarri du Usurbilgo Udalak. Bereziki Garbigunera joan ezin dutenei zereginok erraztea du helburu eta San Marko Mankomunitateak hilean bitan ekartzen duen furgonetaren ordutegi murrizta zabaltea.

Aste hasieran Zubietan jarri zuten, eta hortik aurrera, ostegunero lekuz aldatuko dute hurrenkera honetan; Zubietatik Kalezarrera lekuz aldatuko dute handik Usurbilgo Kaxkora, Aginagara, Txokoaldera eta Santuenera. Bestela esanda, hurrenkera horretan garbigune mugikorra astebetaz egongo da auzo bakoitzean, ostegunetik ostegunera. Egutegia usurbil.eus atarian kontsulta daiteke. “Denborarekin, baloratuko da funtzionamendua ho-



Zubietan da egunotan. Handik Kalezarrera eramango dute, Usurbilgo kaxkora, Aginagara, Txokoaldera eta Santuenera ondoren. Xehetasunak eta egutegia usurbil.eus orrialdean eskura daitezke.

rrela mantenduko den hala egokitzapenen bat egin behar den”, azaldu du Udalak.

**Saneamenduko lanak Aginagan**

Datorren astean hasi eta gutxienez bi aste iraupena izango duten lanok zenbait eragozpen eragingo dituzte Aginagako bi eremuetan, ostegun honetatik aurrera. Eliza Zaharretik Etxebesteko tabernarako

tartea “partzialki itxita egongo da”, ohar-tarazi du Usurbilgo Udalak, “gauetzeko aukera egongo den arren, kotxeak ezingo dira bertatik pasatu egunez, zanga bat ireki behar baitute”. Bestalde, Maioz inguruko aparkalekuan ere “zanga bat ireki behar dute. Kasu horretan, aparkalekua erabilgarri izango da, baina makinaria aurrera eta atzera ibiliko da bertatik”.

## Laburrean

**Ezkeltzuko irteera, atzeratua**

Maiatzaren 13rako Andatza-Ezkeltzu Bizirik! elkarteak Ezkeltzun eraiki nahi duten parke eolikoaren eremua ezagutzeko antolatua zuten txangoa antolatua zuen. Euria tarteko, ordea, ekainaren 4ra atzeratzea erabaki zuten.

**Euskal Sagardoaren dastaketa Artzabalen**

Igandeko Sagardo Egunaren atarian, ostiralean, maiatzaren 19an 19:00etan sagardo dastatzea iragarri dute Euskal Sagardoarekin lankidetzan Artzabalen. Izena hilaren 16a baino lehen (10 euro) eman beharra zegoen.

**Zirimaran matrikulatzeko aukera**

2023-24 ikasturterako izena eman ahalko da maiatzaren 26ra arte, Zirimaran. Asteotako azken aurkezpen saioak ere egunotan egingo dira. Hilaren 18an 16:30-18:30 artean azkena, LH3-LH4koentzat.

**noaqua**

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkariko koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.

**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaqua.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

**Tirada:** 2.930 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**

erredakzioa@noaqua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**





Alazne Arruti

## Gure kobazuloetan

**A**ntza, 1962an Frantziako Michel Siffre espeleologoak, 61 egun eman zituen kobazulo batean inongo argi naturalik eta denbora erreferentziarik gabe. Eta honexek, irten-dakoan, 34 egun pasa zituenaren ustea omen zuen. Beraz, lehen esperimendu honen bitartez, Michelen esperientziak frogatu egin zuen gure esnaldi eta lo zikloak, eguzkiaren argiaren arabera izan ohi direla, eta beraz, honen faltan, gure barne erlojuak huts egiten hasi ohi dela.

Baina zer dira ba 61 egun, 500 egunekin konparatuta? Izan ere, hau gutxi balitz, 2021ean Beatriz Flamini alpinista, eskalatzaila eta espelelogoa, Granadako kobazulo batean sartu zen, 70 metro lur azpira, iluntasunean eta inkomunikaturik, eta ez da irten 2023ko apirilera arte. 500 egun, kobazulo batean, bakartasunean. Urte eta erdi inguru, ur-tantak, estalaktita eta estalagmitak nola eratzen dituzten

aditzen. Zure arnasa eta eulien hara eta honakoak aditzen. Gau eternal bat, kanpoarekin elkarrekintzarik gabe. Norbera, norbere buruarekin hizketan. Iragan eta etorkizunaren arteko hutsune bat.

500 egun zehatz atzera begira jartzeko ariketa egin dut eta Google-ko bilatzaileari esker, 2021eko abenduan kokatu naiz. Mugikorra hartu eta argazkien artean saltoka hasi naiz, nire bizitzaren une txikiak bata bestearen atzetik errenkan pasaraziz. Batek daki heriotzaren atarian halako zerbait gertatuko ote den. Eta ttak, halako batean, heldu naiz abiapuntura. Unibertsitateko lagun batzuekin egindako bidaiatik itzuli berri nintzen. Varsoviako hotzetan hasi eta trenez Berlin elurtura bidaiatu genuen. Ondoren, Alemania ipar mendebaldeko Bremeneko herrira heldu ginen, eta azkenik, Amsterdam eta bere etxe oker eta kanaletara. A ze abenturak...

Baina tira, bueltatu ginen eta jada agurtu dudan etxe batera itzuli nintzen. Kana batzuk gutxixeago nituen buruan eta

Gabonak ospatzeko prest nuen gorputza. Eta ordutik hona, zer ez da gertatu? Aste bete inguruko bidai hartako bizipenek, zenbateko espazioa hartuko lukete kobazulo hartan Beatriz-entzat?

Eta ni, nola biziko nintzateke benetan goseak nagoenean janaz? Egarria sentitzean edanaz? Azken orduko lan entrega presatirik gabe. Nire barruak ezarritako denboraren tamainaz? Akaso gehiago entzungo nituzke nire nahiak. Buruko min eta tentsiorik sumatuko ote nuke bizkar eta lepoaldean? Zenbat orduko loaldiak egingo nituzke? Siestak berreskuratuko nituzke? Kirola egiteko gogoia sentituko nuke ostera? Meditatzerako tarte bat hartuz gero, burua aske utziko nuke? Zenbat denbora eskainiko nioke armairuetan hautsa hartzen pilatzen zaizkidan liburuak irakurtzeari? Lasaiago biziko nintzateke? Edo, gai ote nintzateke kobazulo hartan lehenetsitako gauzak, hemen kanpoan ere leheneste-ko?

Erantzun zehatzik ez dudan

arren, geroz eta errespetu gehiago ematen dit gai honek. Izan ere aurrekoan, zaintzaren esparrutik definitutako “txanpiñoi-langile” kontzeptuaren berri izan nuen. Hala deitzen diote, langileak uler-tzeko gaur egungo moduari, zeinak, soilik ekoizpen-prozesuan sartzen den neurrian axola duen. Enpresara iritsi aurretik non zegoen eta irtetea, nora joaten den ez omen du axola. Bere soldatarekin dena ebazten duela suposatzen da, ez baitu merkataritza kontsumoarekin estaltzen duen hutsuneaz gain, ezer gehiago. Ez du besteenganako erantzukizunik, lana oztopatzen edo baldintzatzen duen zerbait bada. Baina txanpiñoi-langile hori ordea, ez da halakoa: norbait arduratu da bere haurtzaroz. Gaixotu izan denean ere zaindua izan da eta zahartzen denean ere hala egingo du. Nola edo hala eguneroko bere garapena kudeatzen du, bai gorputzarena bai emozioarena. Beraz... txanpiñoiak ote gara koba kanpoan?

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

### Ika-mika

## Lurraren defentsan, Gasteizen elkartuko gara

Datorren maiatzaren 20an, Gasteizen, lurraldeari erasotzen dioten makro-proiektuak errefusatzeko eta geldidatezko errefusatzeko eta geldidatezko errefusatzeko mobilizatuko gara “Lurraren defentsan, Euskal Herria bizirik!” lemapean.

Izan ere, natur guneak eta landa ingurunea industrializatu dituzten azpiegitura berri ugariaren eraso bortitza pairatzen ari gara: zentral eolikoak eta makropoligono fotovoltaikoak, Abiadura Handiko trenbide eta azpiegiturak, Goi Tentsioko lineak, meatzaritza proiektu berriak, erraustegiak, negutegi industrialak eta makrogranjak...

Guztiz kezagarria da ikustea nola inbertitzaile handiak gure lurraldera datozen berri ere,

ingurune naturala hondatzen jarraitzeko eta orain arte kontserbatu diren baliabide natural urriak lapurtzen segitzeko.

Halaber, kostaldean eta eremu turistifikatuetan hedatzen ari diren txikizio eta etxegintza espekulatzailaren ondorioz, porlan azpian betirako galtzen ari gara lurrak.

Hori gutxi balitz, gobernuak enpresa handien interes ekonomikoei lehentasuna ematen diete, eta parlamentuetatik mega-proiektu horien inposaketa errazteko legeak onartzen dira, hala nola udalei, kontzejuei eta lurralde horietako bizilagunei erabakiak hartzeko aukera eragozten dieten Tapia Legea eta gisa bereko legedi nafarra.

Azken aldian, gainera, energia krisiaren eta klima aldaketaren aitzakiaz baliatuz, mendialdeak eta landa eremu zabalak makroproiektu eolikoz eta fotovoltaikoz josi nahi dituzte, biodibertsitatean atzerabuelarik gabeko galera eta balio natural eta paisajistiko handiko guneeetan kalte larriak eraginda, baita elikadura bermatzeko ezinbestekoak diren nekarazitza eta abeltzaintza lurren hondamen nabarmena eraginda ere.

Energia berriztagarrien ezarpen industrialean eta mega-proiektuetan oinarrituta inposatzen ari den trantsizio energetikoaren eredia errefusagarria da guztiz, enpresa energetiko handien interesei men egiteaz gain, kapitalis-

moaren hazkundera eutsi nahi dien ihesbide bat delako.

Gogor salatu behar dugu, horrenbestez, Eusko Jauraritza egunotan onartu duen “Energia Berriztagarrien Plan Sektorialak” EAeko lurraldea enpresa energetikoen eta inbertsoreen nahierara atondutako “joko-taula” handi batean bilakatzen duela.

Hori denagatik, herritar eta talde guztiak lurraren defentsan elkartzeko eta beharrezkoak diren ekintzak eta mobilizazioak antolatzea beharrezkoa da. Azken batean, natur-ondarea kaltetuko ez duen eta ondasun komuna hobetzera bideratutako eredu bat behar dugu.

**Mikel Alvarez Forcada**



## Ika-mika

## Matrix

Carme Jimenez Huertas emakume apartak, "Estamos hechos de lenguaje" liburu bikainean, kontaketa ofizialaren inposaketaren garrantziaz idazten du. Gaur egun inposaketa hori ukazina da. Boterea dutenak, beraien pribilegioak mantendu ahal izateko, ezinbestekoa dute kontaketa ofizial hori inposatzea. Inposaketa hori gauzatzeko, partidu politiko guztiak eta komunikabide guztiak erabiltzen dituzte. Bai batzuk, bai besteak bizi garen Matrixaren ezinbesteko eraikitzaileak dira.

Azken 3 urteotako gertakarien aurrean eta egun gertatzen ari denaren aurrean, alderdi politiko guztiak, inongo salbuespenik gabe eta euskal komunikabide guztiak (Gara eta Berria barne) kontaketa ofiziala, edo bertsio ofiziala, legitimatu eta zabaltzen dute euskal gizaritearen aurrean.

Kontutan hartu beharrekoa

da, azken 3 urteotan alderdi politiko bakar batek eta noski, euskal komunikabide bakar batek, kontaketa edo bertsio ofiziala ez duela zalantzan jarri. Kolaborazio honen adierazgarri edo froga 2021eko abenduaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian aurki dezakegu. Bertan, ikusi dezakegu nola euskal komunikabide guztiak (Gara eta Berria barne) beraien burua saldu egin duten. Hots, koronabirusaren krisiari buruzko bertsio ofiziala zabaltzearen truke dirulaguntzak jaso dituzte.

Usurbilgo udala ere bertsio ofizialaren legitimazioan laguntzen ari da. Badira jada 9 hilabete udalean mozio bat aurkeztu zela eta alkatetzak ez du plenora eraman eztabaidatua izan dadin. Mozio horretan bi txosten aurkeztu dira, biak ere Euskal Autonomi Elkargoan azken hilabete hauetan Covid

txertoak direla eta gertatzen ari den gehiegizko hilkortasunaren egoera aztertzen dutenak.

Azken 3 urteetan gertatutakoaren bertsio ofiziala argudio hauetaz osaturik dago: koronabirusaren krisia, euskal gizon eta emakumeek bere bizitza arriskuan jartzen duen txerto esperimentalak jartzeko jasan duten hertsapena; sistema neoliberalak jasaten ari den krisi ekonomikoa, krisi finantzieroa eta bankarioa; Ukrainako gerraren atzean dauden gertakariak, non ia eguneroko manipulazioaren bidez, biztanleriari ukatu egiten zaio mendebaldeko elite ekonomikoaren artean dagoen gatazkaren ulermena, azken hauek polobakarreko mundu batean bere pribilegioak mantentzen saiatzen ari direlarik; eta azkenik, garapen bidean dauden herrialdeak ditugu, hauek mundu multipolarra eraikitzeko hel-

burua dutelarik.

Azken 3 urteotako gertakariak eta eman den manipulazioa alderdi politiko guztien eta komunikabide guztien laguntzarekin, zerbait "berezia" gertatzen ari delaren froga ukazina dira. Aro aldaketa edo epoka aldaketa bat bizitzen ari gara. Baina Matrix ofizialak aro aldaketa ematen ari den momentu historiko honetan Euskal Herria eragile proaktiboan bihurtzeko beharrezkoa duen informazioa gureganatzeko aukerak sahistu nahi dizkigu, bai maila indibidualean baita maila kolektiboan ere.

Adrian Zelaia, datorren maiatzaren 20an, goizeko 11:00etan Udarregi ikastolaren jangelan Aro Aldaketari buruz emango duen hitzaldia Matrix ofizial horretatik ateratzeko aukera ezin hobea da.

## Ikigai-Usurbil

**Erredakzioaren oharra:** Goiko idatzi honetan aipatzen den datu hau ez da zuzena: "...Kolaborazio honen adierazgarri edo froga 2021eko abenduaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian aurki dezakegu. Bertan, ikusi dezakegu nola euskal komunikabide guztiak (Gara eta Berria barne) beraien burua saldu egin duten. Hots, koronabirusaren krisiari buruzko bertsio ofiziala zabaltzearen truke dirulaguntzak jaso dituzte".

Datua ez da zuzena, Eusko Jaurlaritzak argudio honekin arrazoitu zuelako dirulaguntza: "Zuzeneko dirulaguntzak ematea, 2021. urtean eta gutxira 5.000.000 euro, honako zerrenda honetan ageri diren prentsa- eta irrati-komunikabideei, bertan zehazten diren banakako zenbatekoetan, COVID-19ak Euskadin egoitza edo ordezkariak duten gizarite-komunikabideetan eragindako inpaktu ekonomikoaren

ondorioak arintzeko".

Goiko idatziak badu bigarren akats bat. Esaten dena ez baita egia: "...euskal komunikabide guztiak (Gara eta Berria barne) beraien burua saldu egin duten. Hots, koronabirusaren krisiari buruzko bertsio ofiziala zabaltzearen truke dirulaguntzak jaso dituzte". NOAUA aldizkaria zein web orrialdea ere euskal komunikabide bat da, eta tokiko nahiz nazio mailako beste euskal he-

dabide askok bezalaxe (Argia astekaria, esate baterako), ez genuen dirulaguntza lerro horretako xentimorik ere ikusi. Are gehiago, laguntza-lerro horretatik baztertuak izan ginen.

Ika-mikaren egileari jakinarazi zaio bere argudioaren akats bikoitza, baina zuzentzeko asmorik agertu ez duenez, ohar hau argitaratzea beste erremediorik ez zaigu geratu.

## NOAUAko erredakzio taldea



*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 19/22

20170  
USURBIL



# “Irudi bat datorkit burura eta hori artelan bilakatu ondoren ulertzen dut haren esanahia”


**M**aiatza amaitu arte Artzabal jatetxean aukera izango da “A mi bola” Joseba Aierberen lanaz gozatzeko. Hiru dimentsiotan sortutako lanak jatetxeko hormetan eskegita daude usurbildarrak azken hilabeteetan egindako lanaren erakusgarri. Artistarekin izan da NOAUA! lan hauen nondik-norakoak ezagutu asmoz.

**NOAUA! “A mi bola” izeneko erakusketa daukazu jarri Artzabalen.**

**Joseba Aierbe:** Hiru dimentsiotan egindako lanak dirudite. Urrunetik kuadroak direla ematen du, baina hurbiltzean hiru dimentsiotako zerbait dela ikus daiteke. Batzuei hasieran titulua jarri nien, baina geroa ikuslea muga ote zezakeen pentsatu nuen. Aspaldian lan artistikorik egin gabe nengoen lana dela medio, eta azken hilabete hauetan berriz ere arteari bere espazioa ematen ari naiz. Oso terapeutikoa egiten zait.

**Erakusketa hau jarri baino lehen ere erakusketak jarri izan dituzu?**

Bai. Gaztetan arte dramatikoak ikasi nuen eta eszenografiak arduratzen nintzen. Erakuslei-



Artzabalen ipini dituen artelanak, “urrunetik, kuadroak direla ematen du, baina hurbiltzean hiru dimentsiotako zerbait dela ikus daiteke”.

## JOSEBA AIERBE

**“Azken hilabete hauetan, berriz ere, arteari bere espazioa ematen ari naiz. Oso terapeutikoa egiten zait”**

hoak ere apaindu izan ditut, bai eta tabernetan jarri ere. Orain tabernan lan egiten dut soldata bat behar dudalako, baina artearekin uztartzen ari naiz orain zaletasun modura.

**Nondik hartzen dituzu ideiak horrelako lanak egiteko?**

Batzuetan irudiak etortzen zaizkit burura. Material berriak ezagutu eta probatzen ari naiz,

eta askotan materialekin esperimentatzen ari naizela irudi batzuk etortzen zaizkit. Normalean, irudi bat izaten dut buruan eta ondoren, teknikoki irudi hori nola errealitate bilakatu pentsatzen dut. Probak eta probak egiten aritzen naiz eta lana etengabe aldatzen. Behin teknikoki nola egin argi ikusten dudanean, sorkuntza lan hori egiten dut eta mila aldaketa egin ostean lortzen dut amaierako emaitza. Askotan zintzilikatuta ikusi behar dut eta egunero begirada bat bota ostean, halako batean falta duen xehetasun hori topatzen dut. Lan batzuk oso sinpleak dira, nahiko minimalista baina. Oso modu arkitektonikoan pentsatzen dut, alemanek

bezala, baina ideia eroekin ere uztartzen dut izaera hori.

**Lan bakoitzak bere istorioa du, orduan.**

Oso momentu zaila bizitzen ari nintzen momentu batean lan bat egin nuen. Hilabete pare batera konturatu nintzen bizitzen ari nintzen prozesu hori irudikatu nuela nahi gabe. Lan asko horrela sortzen dira; irudi bat etortzen zait eta hori egiten dut, baina askotan momentu horretan ez dakit zer den. Geroa ulertzen dut irudi horrek zer esan nahi duen eta zentzua ematen diot. Hausnartutako ideia bat irudikatzen saiatzen dira asko, niri kasu batzuetan alderantziz gertatzen zait: irudi bat datorkit burura eta hori lan bilakatu ondoren ulertzen dut haren esanahia. Zentzu horretan oso terapeutikoa da artea niretzat. Pelikuletatik ateratako ideiak ere erabiltzen ditut edo liburuetan oinarritutakoak: Alfred Hitchcocken kristalezko begia, Agatha Cris-tieren lanak... Imaginario propiotik ere sortzen ditut beste batzuk: lanean nagoela haize pixka bat hartzera ateratzen naizen patioan oinarrituta edo figura jakin batzuetatik abiatuta sortutako lanak; puteroarena, esaterako.

## “Artelanak oparitu egiten ditut”

**NOAUA! Erakusketa amaitzean zer egingo duzu lan hauekin?**

**Joseba Aierbe:** Oparitu egiten ditut, normalean. Pare bat pertsonak deitu didate interesa agertuz eta truke-txo bat egin dezakegu edo opari modura eman. Artisau Azokarako, adibidez, liburu markadore pila bat egin nituen. Azkenean, oparitu egin

nituen. Zintzilikatuta jarri nituen arropa zintzilikatze-ko oinarri batean eta alboan kutxa bat nahi zuenak borondatearen truk nahi zituenak hartzeko. Hala ere, pila bat sobera gertatu zitzaizkidan eta liburutegira eraman nituen han bana zitzaten. Horrelako esperientziak politak dira eta eskertze-koak. Jendeak eskertzen ditu horrelako oparitxo txikiak.

**Arte dramatikoak ikasi zenuen.**

Bai eta beka bat jaso nuen Eusko Jaurlaritzak emandakoa. 10 pertsona ginen Euskadi guztian eta Hika Antzerki Taldea sortu genuen. Telebistan, pelikula pare batean ere ibili ginen, baina aktore lana ez da erraza. Inoiz ez dakizu biharko egunean lanik izango den hala ez. Horregatik nabil orain tabernan lanean. Etxeak pintatzen

ere egin nituen urte batzuk. Haiek denak utzi nituen eta orain hobby modura itzuli egin da nire alde artistiko hori eta Artzabalen dauden lanak egiten aritu naiz. Zero Zabor taldekoek erraustegiaren aurkako jarduera bat egiteko ere eskatu zidaten lanen bat egitea egoera irudikatze-ko eta halako lanak ere egiten ditut.



# GuraSOS: “Oria eta Zurriola arriskuan daude oraindik”

**H**ala jakinarazi du GuraSOSek “GHK-k Añarbeko kolektorearen bidez kutsatutako urak husteko hasierako plana aldatu” ostein Ura Agentzian maiatzaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez jakinarazi zuen moduan. Proiektu aldaketa honi erreklamazioak aurkeztuko dizkiola jakinarazi du aipatu elkarteak. “GHK-k proiektua aldatu izanak esan nahi du aurrekoa bertan behera utzi dela, eta, beraz, berriro hasten da prozedura hutsetik”, argitu du GuraSOSek azken egunotan jakinarazi duenez.

Horrez gain, “GAOren iragarpenak bi zentzutan berretsi ditu GuraSOSen salaketak. GHK isilbidez onartzen ari da kutsadurarik badela eta ez duela Añarbeko Mankomunitatearen isurketa-baimenik, eta, aitzitik, agerian uzten ditu bai ingurumen-baimena eman zuen Ingurumen sailburuordea. GHKk GuraSOS elkarteari faltsukeriak zabaltzea eta larritzea leporatu zion”.

## Erreklamazioak aurkeztuko dituzte

Albiste honen harira, GuraSOSek jakitera eman duenez, “orain aldatutako proiektuari buruzko erreklamazioak aurkeztuko dizkio URARI, onartezintzat jotzen duelako erabilitako anbiguotasuna, eta uste duelako Europako ingurumen-zuzenbidearen prebentzio- eta arreta-printzipioek eta legeak berak arazoa konpontzera eta edozein arrisku saihestera behartzen dutela”.

Horrekin batera, GuraSOSek Arantxa Tapia ingurumen “sailburuari gogorarazten dio “instalazioak aldi baterako, osorik edo zati batean, ixteko neurria hartu behar dela, bai eta Lege honetako 2. artikuluan aurrei-



“GHK isilbidez onartzen ari da kutsadurarik badela”, dio GuraSOSek, “eta ez duela Añarbeko Mankomunitatearen isurketa-baimenik”.

## GURASOS

**“Zentzugabekeria baten aurrean gaude, eta horren erakusgarri da atzematen diren ur kutsatuekin zisterna-kamioiak kargatzeko ‘soluzioa’ mahai gainean jartzea. Logikoena ihesarekin amaitzea da”**

kusitako behin-behineko neurriak ere. 1/2016 LEDaren 35 artikulua, arriskua edo kaltea sortzen jarraitzea eragozten duena”.

Elkarte honetan esanetan, azken egunotako erabakiarekin, “zentzugabekeria baten aurrean gaude, eta horren erakusgarri da atzematen diren ur kutsatuekin zisterna-kamioiak kargatzeko “soluzioa” mahai gainean jartzea (jakina, kutsaduraren zati handi bat ezingo da hartu). Logikoena ihesarekin amaitzea da, GHK-k bere hobi pitzatuen matxura eta erraustegiko ur-sarearen estankotasunaren galera konpontzera behartuz”.

## Agintarien atzerapausoa

Baikortzat jotzen du “gizarte zibilaren erreklamazio eta errekurtsoen ondorioz agintarietako atzerapausoa eman behar izana, baina kezkatuta agertu da gaur egun Oria ibaiaren lixibiatu kutsatzaileekiko etengabeko kutsadurak eta horren zati bat Zurriolara bideratzeko arriskuak badirautelako”. Horregatik GuraSOSek dioenez, “Oria eta Zurriola arriskuan daude oraindik”.

## Lixibatu kutsatzaileen arriskua

Onartezintzat jotzen dute gainera, “GHKren esku utzi nahi izatea, delitu ekologikoagatik ikertuta, hain zuzen ere errekararen egindako isuriengatik, Monpasen Zurriola ondoan isurtzen den saneamendu-sarera edo errekarora bertara isurtzen den erabakitzea. Alternatiba horiek desagertu egin behar dira ingurumena (itsasoa eta ibaia, fauna eta flora) eta hondartzetako eta itsasadarreko erabiltzaileen osasuna babesteko. Onartezina da errekararen lixibiatu kutsatzaileak isurtzea, 2022ko uztailaren 13tik gaur egun gertatzen den bezala”.

## Lau greba egun deitu ditu Michelingo

### langileen batzordeak

Hitzarmen kolektiboa negoziatzen ari diren honetan, Michelingo langileen batzordean ordezkariak duten LAB, CCOO, UGT, ELA eta CSI sindikatuek berri eman dute “adostasunera iritsi direla borroka honetan eman beharreko urratsei buruz”. Hala, “enpresako zuzendaritzarekin irekitako Negoziazio Mahaian aldarrikapenak indartzeko beharrari erantzuteko” lau greba eta mobilizazio egun deitu dituzte ekainaren 5ean, 19an, uztailaren 10ean eta 11n.

## Erreferendum loteslea eta mobilizazioak

Hiru konpromiso adostu ditu langileen batzordeak. Batetik, “hitzarmena negoziatzeko mahaian Enpresa Batzordean adosturiko plataforma bateratua defendatzea”, bereziki gai hauetan: soldata kontzeptu guztiak inflazioarekin lotzea; galduriko eros-ahalmena berreskuratzeko soldata igoerak; sarrera soldata aldatzea, Enpresa Batzordeko plataforman jasotako baldintzen arabera; plataformak Hileko Ordainketa Sistemari buruz jasotakoari erreparatzea, bereziki hasierako gutxieneko soldatari dagokionean.

Horrekin batera, akordioetan hitza hartzea ere galdegin dute. “Atal sindikal guztiak enpresa ordezkariarekin akordioak lortzeko duten zilegatasuna errespetatuz, akordio horiek langileek berretsiko dituzte erreferendum loteslearen bidez”. Azkenik, “atal sindikalek mobilizazio egutegi bat osatu eta adosteko konpromisoa hartu dute”.

Eskakizun hauen harira mobilizazio eta greba egunok deitu dituzte.

# Agerreazpiko udal baratzeak eta Txirikordako etxebizitzak esleitzeko zozketak

A bian zituzten prozeduren amaierara bidean dira bi egitasmo; batetik, Ugartondon kokaturiko Txirikorda belaualdiarteko etxebizitza komunitarioa eta Agerreazpiko udal baratzeen parkea. Bi egitasmootako pisu eta partzelak esleitzeko zozketa bana deitu du Usurbilgo Udalak hurrengo egunotarako Potxoenean.

## Agerreazpiko udal baratzeak esleitzeko zozketa

- Maiatzak 17 asteazkena.
- 11:30ean Potxoenean.
- Zehaztasunak: hamar urte bete dituzten Agerreazpiko udal baratzeak 2028ra arte esleitzeko zozketa. Guztira, 60 partzela esleituiko ditu Udalak; 30 metro koadroko 36 eta 60 metro koadroko beste 24. Itxaron zerrenda ere osatuko da. Baratzeak esleituiko zaizkienei zuzenduriko bi ohar. Batetik, “zozketaren bidez ebatziko da zeintzuk diren esleipendun berriak eta zein partzela egokitu zaien. Dena den, esleipendun berriak lehendik udal bara-



Agerreazpiko udal baratzeak 2028ra arte esleituiko dira.

## UDAL BARATZEEN PARKEA

**“Guztira, 60 partzela esleituiko ditu Udalak; 30 metro koadroko 36 eta 60 metro koadroko beste 24”**

tzeen erabiltzaileak badira, aurretik lantzen duten udal baratzea esleituiko zaie, azalera bereko baratzea eskatzen

badute”. Bigarrenik, “erabiltzaileek Agerreazpiko udal baratzeen elkartearen parte izan beharko dute: uko eginez gero, edo elkarteko betebeharrak ez egiteak partzela erabiltzeko eskubidea galtzea dakar”.

## Txirikordako etxebizitzaren esleipenerako zozketa

- Maiatzak 18, osteguna.
- 12:00ean Potxoeneako Ur-dintxo aretoa.

- Zehaztasunak: 16 etxebizitza zozketatuko dira. 18-30 urte arteko zuzendurikoak zozketa bidez esleituiko dira, 65 urtetik gorakoek Gizarte Zerbitzuetako baremazio bidez. Gazteentzako deialdian 22 izan dira onarturiko eskabideak, bakarra alboratua. 65 urtetik gorakoek lau eskaera onartu eta beste bi baztertu dituzte. Zerrendak usurbil.eus atarian ikus daitezke.

# Andatzako indusketa arkeologikoetarako boluntario bila

Andatza II-III eta Irigain eremuetan uda honetan indusketa lanetarako boluntarioak behar ditu Aranzadi Zientzia Elkartek. “Ikerketa arkeologikoak Aranzadi Zientzia Elkartek udan garatzen dituen jarduera nagusietako bat dira. Koba, dolmen, herrixka, galtzada, gaztelu, ermita eta abarretan erregistratzen den informazioa ezinbestekoa da gure iragana ezagutzeko eta gure ondarea kontserbatzeko. Aranzadiren ikerketa arkeologiko horiek bertako zuzendarien, ikasleen eta bertan inplikaturiko pertsona guztien

boluntariotza-lanari esker egiten dira”, azaldu du Aranzadik.

Besteak beste, Usurbilen egingo dira lanok; zehazkiago esanda, Andatza II eta III eremuan (abuztuaren 7tik 19ra) eta Irigainen (irailean) egingo dituzte. Zereginotan aritzeko boluntario bila dabil Aranzadi. Aurtengo udako indusketa lanetan parte hartu nahi duten interesdunek ekainaren 1a baino lehen eman beharko dute izena doan.

## Andatza II eta III

- Zehaztasunak: “Andatza mendia ikertzeko proiektu honetan bi aztarnategi desberdinak indus-

ten ari dira: Andatza III Brontze Aroko monumentu megalitikoak eta Irigain izeneko erromatar garaiko bizitokia”.

- Mota: Indusketa arkeologikoak.
- Kronologia: Neolitoa-Burdira Aroa.
- Indusketa-datak: Abuztuak 7-19.
- Zuzendaritza: Manu Ceberio, Izaro Quevedo.
- Hizkuntza: elebiduna (gaztelania eta euskara).
- Izena emateko prezioa: doakoa (mantenua barne).
- Leku-kopurua: 5.
- Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, Foru Aldundia.

## Irigain

- Mota: Aire zabaleko aztarnategia.
- Kronologia: erromatar garaia.
- Jarduera-datak: irailean.
- Zuzendaritza: Manu Ceberio, Izaro Quevedo.
- Hizkuntza: Elebitan (gaztelera y euskara).
- Izena emateko prezioa: doakoa (bazkariak barne).
- Leku kopurua: 5.
- Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Foru Aldundia.
- Izen-ematea: aranzadi.eus atarian.



# San Ixidro eguna bezperan ospatu zen



Arratsaldean, harrijasotze, aizkolaritza proba eta pentlatoi erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zuten frontoian.



Egunbete aurreratu zituen Alkartasuna Kooperatibak baseritarren eguneko ospakizunak, maiatzaren 14ra. Euria tarteko, aterpean ospatu zuten eguna, frontoian.

Aipatzekoa, antolakuntzak prestatu eta banaturiko ha-maiketakoarekin batera, herri kiroletan diharduen gazte belaunaldi berriaren parte hartzea.

Eguerdian, Unai Etxebarria eta Igoi Pikabea aizkolarari gazteak lehiatu ziren Ane Labakak eta Sebastian Lizasok giroturiko hitzorduan.

Arratsaldean, harrijasotze,

aizkolaritza proba eta pentlatoi erakustaldi bikaina eskaini zuten Hodei, Jakes eta Andoni Iruretagoienak eta bi herriki-deek; Lur Errekondok eta Ane Zinkunegik.



**FUNERARIA  
GONZALEZ  
EHORZTETXEA**

munalurra 8, USURBIL

*EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU  
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK*

**zerbitzu pertsonala,  
eta familia bakoitzari egokituta**  
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU  
GURE FUNERARIARA DEITU ZUZENEAN  
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

**943 36 21 63 (24 orduz)**

[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)



**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA

**G15 USURBIL**

HIGIEZINA | INMOBILIARIA

**SALEROSKETA & ALOKAIKUAK**  
Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 [info@g15usurbil.eus](mailto:info@g15usurbil.eus)  
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

# “Oso erraza da abizenak euskarazko grafiara aldatzeko prozesua, bost minutuko kontua”

**A**ndoingo bake epailea da Ramon Iriarte, eta berak azaldu digu zein diren ‘Apelliduak abizentzeko’ eman beharreko pausoak eta aurkeztu beharreko agiriak. Nork bere herriko bake epaitegira joan behar du, eta momentuan egingo diote aldaketa.

“Oso erraza eta azkarra” da apelliduak abizentzeko prozesua; abizenak euskarazko grafiara aldatzekoa, alegia. Hala azaldu digu Ramon Iriarte Echevestek, Andoaingo bake epaileak. Izan ere, abizena euskaratu nahi duenak, bere herriko bake epaitegira joan behar du horretarako, eta momentuan egingo dute prozedura, betiere irizpide batzuen arabera. Aurkeztu beharreko agiriak edota onartuta dauden aldaketak eman dizkigu aditzera bake epaileak; eta gomendioa luzatu du, aldaketa «gaztetan» egiteko, gerora gauzak erraztuko dizkigulako.

## Martxan jarraitzen du ‘Apelliduak abizendu’ kanpainak...

**Ramon Iriarte:** Bai, eta aurreko dagoeneko lau dira abizena euskaraz jartzeko eskaera egin dutenak Andoainen, aurreneko lauhilekoan. Hasieran izan zen kolpea, abizenak euskaratzeko



Ramon Iriarte Echeveste, Andoaingo bake epailea. Bertan egiten dute abizenak euskarazko grafiara aldatzeko tramitea, modu azkarrean.

### RAMON IRIARTE

**“Euskaltzaindiaren irizpideen arabera jokutzen dugu, baina horiek aldatuz doaz. Gauza bizia da hizkuntza, eta hasieran onartzen ez ziren izen pila bat, onartuta daude orain”**

aukera zabaldu zenean, 2000. urtean. 30 bat eskaera izango genituen orduan. Baina gerora ere jarraitu dute etortzen, tarteka. Kontutan hartu behar da, seme-alabak adin txikikoak badira, gurasoek abizena aldatuz gero haiei ere aldatzen zaiela, eta beraz, espediente bakarrean egiten dela aldaketa guztia. Gerora ez dute beraiek egin behar berriro.

### Nolakoa da abizena euskaratzeko prozesua?

dena, eta agiri gehiago aurkeztu beharko dituzu agian, pertsona bera dela egiaztatzeko. Gaztetan egiten baduzu, aldiz, toki guztietan agertuko dira abizenak euskaratuta.

### Abizena ez ezik, izena ere aldatu daiteke, ezta?

Bai, izenarekin ere berdin. Gainera, izenekin bi kasu ezberdin daude: izena euskaratzea, edo aldatzea. Jesus Maria bazara,

Oso erraza da. Bake epaitegira agertu behar duzu, bakoitza bere herrikora; eta bost minutuko kontua izaten da. Ekarri behar dira nortasun agiriaren kopia; errolda agiria, erakusteko herrian erroldatuta zaudela; eta jaiotza agiria edota aldatu behar duzun beste edozein agiri, ezkontza agiria adibidez. Horrela, aldaketa bideratzen da agiri guztietara. Bake epaitegian begiratzen dugu eskatutako aldaketa onartuta dagoen, eta momentuan egiten dugu.

### Zein senideri eragiten dio, norberak abizena aldatzeak?

Pertsona baten abizena aldatzean, seme-alabei aldatuko zaie baita ere, baina adin txikikoak badira bakarrik. Adin nagusiko kasuan, beraiek eskatu be-

harko dute aldaketa. Gainerako senideei ez die eragiten aldaketak. Esaterako, zuk abizena aldatuz gero, zure anaia ez zaio aldatuko, berak etorri beharko du. Bakoitzak eskatu behar du berea.

### Abizena aldatu ondoren, gainerako dokumentazioan ere egin behar duzu aldaketa?

Bai, hori norberak egin behar du. Nortasun agiria berritzaera zoazenean, eraman behar duzu agiri bat, adierazten duena abizena euskaratu duzula, eta aurrerantzean beste modu honetara idatziko dela. Agiri hori bake epaitegian bertan emango diegu. Eta kasu batzuetan, bertan jaiotakoak ez izan arren, aukera baldin badaukagu jaiotza agiria ikusteko, eman diezaiokegu.

Baina norberak eskatu behar du aldaketa gero, nortasun agiria berritu behar duzun hurrengo aldian. Aurrekoan etorri zitzaidan gizon bat bake epaitegira, abizena euskaratzera. Etxekoek esaten zioten, bera bakarrik falta zela, NANean gaztelaniaz ikusi ziotelako. Begiratu genuen, eta esan nion dagoeneko euskaratua zeukala abizena, 2001. urtean edo. Kontua da, aldaketa egin ondoren, ez zuela NANean ere aldatu.

## “Epaitegietako prozedurak doakoak dira”

### Komeni da ahalik eta azkarren egitea abizena euskarazko grafiara aldatzeko tramitea?

**Ramon Iriarte:** Nik gomentatzen dut gaztetan egitea. Printzipioz, ez litzateke arazorik egon beharko gerora ere; baina demagun etxebizitza erosi duzula, eta eskritoretan azaltzen dela euskaratu gabeko abizena. Gerora abizena aldatuta, arazoak sortu daitezke, zu ote zaren eskritoretan ageri

dena, eta agiri gehiago aurkeztu beharko dituzu agian, pertsona bera dela egiaztatzeko. Gaztetan egiten baduzu, aldiz, toki guztietan agertuko dira abizenak euskaratuta.

### Abizena ez ezik, izena ere aldatu daiteke, ezta?

Bai, izenarekin ere berdin. Gainera, izenekin bi kasu ezberdin daude: izena euskaratzea, edo aldatzea. Jesus Maria bazara,

euskaratuta izango zara Josu Mirena. Baina Josu bakarrik jarri nahi baduzu, orduan aldaketa bat egitea da. Alegia, Mirena kentzea aldaketa da. Baina biak egin daitezke, eta erraza da. Kasu horretan ere, Euskaltzaindiaren arabera jokutzen dugu, ezin da edozein aldaketa onartu. Baina, esan bezala, egokituz doaz irizpide horiek ere: gauza bizia da hizkuntza, ez da zerbait finkoa, kaxa batean sartuta da-

goena; eta hasieran onartzen ez ziren izen pila bat, onartuta daude orain.

### Doakoak dira tramite horiek?

Bai, doakoak dira. Epaitegietako prozedurak doakoak dira, orain arte. Leku bakarretakoa izango da. Beraz, abizena euskaratu nahi dutenek, prozesua zaila edo garestia denik ezin dute esan; aitzakia hori, behintzat, ezin dute erabili.



# Milaka 'apellidu abizentzeko' aukera, Buruntzaldeko udalen ekimenari esker

Azkeneko 15 urteotan, mila herritar inguruk euskaratu dute beraien izena edo abizena Buruntzaldean, eta hori sustatzen jarraitzen dute eskualdeko sei udalek, elkarrekin, 'Apelliduak abizendu' ekimenaren baitan.

Badira urte batzuk, 'Apelliduak abizendu' ekimena mar-txan jarri zutela Buruntzaldean. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek, euskararen arloan elkarrekin aurrera eramaten dituzten ekimenetako bat da, tokian tokiko bake epaitegiekin lankidetzan. 2000. urtetik dago abizenak zuzenean euskalduntzeko aukera, erregistro zibilaren legearen 40/1999 erreformak ahalbidetu baitzuen hori; ordura arte, abizenak aldatzeko prozeduraren bitartez egiten zen. Orduz geroztik, makina bat izan dira apelliduak abizentzera animatu direnak: Echeverría, Aguirre, Lecuona edo Erquicia izateari utzi, eta Etxeberria, Agirre, Lekuona edo Erkizia izatera pasa direnak,

Euskaltzaindiaren webgunean aurkitu daitezke, abizenak euskaratzeko onartuta dauden aukerak.

## 'APELLIDUAK ABIZENDU'

**"2011tik 2022ra,  
164 lagunek ekarri dute  
izena edo abizena  
euskarara Usurbilen"**

besteak beste.

Izan ere, hala nahi duenak oso erraz egin dezake aldaketa, nork bere herriko bake epaitegian. Hiru agiri eraman beharko dira: errola-agiria, udaletxean eskatu behar dena; jaiotagiri ofiziala, jaioterriko bake epaitegian bertan eskuratu beharrekoa; eta NANaren fotokopia. Ezkonduek edota seme-alabak dituztenek, Familia Liburua ere

eraman beharko dute. Horiekin Bake Epaitegira bertaratu, eta han bertan egingo dute abizenaren aldaketa, oso tramite simplea baita egin beharrekoa. Gainera, edozein zalantza izanez gero, Bake Epaitegian jaso daitezke argibide guztiak.

## 59 izen eta abizen euskaratuta Buruntzaldean, 2022an

Euskaltzaindiak onartutako aldaketak dira egin daitezkeenak, eta horiek ikusteko aukera dago bere webgunean bertan (euskaltzaindia.eus), 'Hizkuntza-baliabideak' arloko 'Onomastika' atalean, deituei eskainitako txokoa.

Milaka abizen dira euskaldundu daitezkeenak, eta izenak euskarara ekartzeko aukera ere badago Bake Epaitegietan. Horrela, ehunka izan dira izena edo abizena euskaratu dutenak, Buruntzaldean: azkeneko 15 urteotan, mila inguru.

Oso esanguratsuak dira datuak, kontutan hartuta urte asko pasa direla abizenak zuzenean euskalduntzeko aukera zabaldu zenetik. Andoainen, esaterako, 210 izan dira izena edo abizena euskaldundu dutenak, 2010etik 2022ra bitartean. Astigarragan, berriz, 101 lagunek egin dute aldaketa epealdi berean, eta 171 izan dira Urnietan. Antzeko kopurua izan da Usurbilen ere, 164 lagunek ekarri baitute izena edo abizena euskarara (2011tik 2022ra). Eta Lasarte-Orian, 129 lagunek baliatu dute aukera hori (2012tik 2022ra bitartean).

Gainera, oraindik ere martxa polita darama ekimenak. Joan den urteko kopurua ikusi besterik ez dago horretarako: 59 herritarrek egin zuten izen edo abizen aldaketa, euskaratzeko.

# Apelliduak abizendu

**Aurkeztu beharreko agiriak:**

- Errola agiria
- Zure udaletxeko bulegoetan egingo dizute.
- Jaiotzagiri literala
- Zure udalerriko Bake Epaitegian egingo dizute.
- Donostian erregistratuta bazaude,
- Donostiako Erregistro Zibilera joan behar duzu (Kalkutako Teresa plaza z/g 943 000 730).
- NANaren fotokopia
- Famili liburua
- Ezkonduta egon edo seme-alabarik izanez gero.

**Egin beharrekoa:**

Aipatutako agiriak bildu eta herriko Bake Epaitegira joan. Bertan egingo dizute aldaketa. Zalantzaren bat izan edo argibide gehiago nahi izanez gero, deitu herriko Bake Epaitegira:

- Andoain: 943 300 820
- Astigarraga: 943 335 236
- Hernani: 943 552 836
- Lasarte-Oria: 943 371 629
- Urnieta: 943 008 345
- Usurbil: 943 372 336

Buruntzaldea  
euskaraz

Andoain, Astigarraga, Hernani,  
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo  
Udaleko Euskaraz Batzordeak

Diseñatzailea: Iñaki

BIAIN

Agulre  
Amézaga  
Aramburu  
Arrechea  
Arregui  
Azcarate  
Bengochea  
Bordaberry  
Churrua  
Echarri  
Echeverria  
Egulguren  
Escudero  
Golcochea  
Gorochategui  
Gurruchaga  
Iltarregui  
Iparraguirre  
Izaguirre  
Lascuain  
Lerchundi  
Mendivil  
Michelena  
Ochoa  
Ollollegui  
Sagastizabal  
Urretavizcaya  
Viain


Agirre  
Ametzaga  
Aranburu  
Arretxea  
Arregi  
Azkarate  
Bengoetxea  
Bordaberril  
Txurruka  
Etxarri  
Etxeberria  
Egiguren  
Eskudero  
Golkoetxea  
Gorrotategui  
Gurrutxaga  
Iltarregi  
Iparraguirre  
Izaguirre  
Laskuain  
Lertxundi  
Mendibil  
Mitxelena  
Otxoa  
Ollollegi  
Sagastizabal  
Urretabizkala  
Blain

# Baietz Hamahiru!

Horra Maripurtzil eta Pelloziri, komuna garbitzeko prest. Berdin-berdinak ematen dute gure bi lagunek, ezta? Baina badira aldeak bien artean. Ea aurkitzen dituzun.



## Handienetik txikienera



Ordena itzazu komuneko paperak handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 8.


Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek zentzua izan dezan.

## Denboraren dominoan




## Bakoitzari berea



Gezurra dirudi, zenbat tresna erabiltzen diren etxean garbiketarako. Hona hemen batzuk. Lotu gauza bakoitzari bere izena.



- LANBASA
- ORBANA
- ERRATZA
- XABOIA
- ESKUILA
- PALA
- GARBIGAILUA
- ASTOA
- PERTZA
- XURGAGAILUA
- BELAKIA
- ZAPIA
- KONKETA
- ESKULARRUAK
- LISABURDINA







## Itzala

Ai, gaixoa Pelloziri. Usapal batek kaka egin dio leihoan eta garbitu beharra dauka. Piura harrigarria du, ezta? Baina lasai, ez da leihotik eroriko, eta eroriko balitz ere, ez litzateke larria izango, lurretik metro erdi eskasera baitago. Beno, beno, utz ditzagun azalpenak eta harira: zein da bere itzal zuzena? Bide batez, irudia MARGOTU.


## Sudokua

Bete itzazu sudoku honetako hutsuneak, LEIHOA hitza osatzen duten hizkiak (L, E, I, H, O eta A) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



## Mezu Gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta gure lagunek zer dioten asmatuko duzu.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

# Zubietako Herri Batzarra ere, legealdi aldaketa betean

Udal eta foru hauteskondeekin batera, Zubietako Herri Batzarra osatzeko bozketa eguna izango da da maiatzaren 28a. Dagoeneko osatu dute hurrengo legealdirako hautagai taldea. Usurbil aldetik, Josune Iparragirre Tolaretxipi eta Haritz Arrizabalaga Garmendia aurkeztu dira. Donostia aldetik Maider Izagirre Txoperena, Jon Andoni Arroyo Arozena eta Nekane Zaldua Iturrioz. Arroyok eta Arrizabalagak bigarren legealdia izango dute, gainerako hiru kideak estreinakoz aurkeztu dira deialdi honetara.

## NOAUA Nola iritsi zarete legealdi bukaerara?

**Haritz Arrizabalaga:** Sentsazio gazi-gozoa geratu zait. Ilusio handiarekin sartu ginen, herrian zer bait egiteko erantzukizunarekin, baina kosta ziztaigun martxa hartzea, taldea erabat berria baitzen. Gainera, segituan pandemiak harrapatu gintuen.

## Pandemiak baldintzatutako legealdia izan da argi denez.

**H.A.:** Horrek gauzak egiteko gogo edo ilusio hori frenatu egin zuen eta hala joan zaizkigu legealdiko bi urte oso. Sentsazioa da gehiago egiteko asmoa genuela, edo ilusioa behintzat, baina ezintasun sentsazio hori izan dugu. Gauza gehiago egin ahal izateko esperantzarekin ekin nahi diogu legealdi berriari.

**Jon Arroyo:** Frenatutako ilusio hori berpiztu eta aurrera egiteko erronka berriei heldu nahi diegu.

## Nola gogoratzen duzue pandemia garaiko Zubietan?

**H.A.:** 2019ko irailean hasi ginen. Urte bukaera hartan lehen ez genuen aholkularia hasi zen gurekin lanean; Inaxio Usarral-



Nekane Zaldua Iturrioz, Jon Andoni Arroyo Arozena, Josune Iparragirre Tolaretxipi eta Haritz Arrizabalaga, Zubietako herri batzarreko hautagaiak.

## HERRI BATZARRA

**“Bi udalekin sinaturiko hitzarmenak onura asko ekarri ditu. Nolabait, udal bakoitzak bere gain hartzen dituen ardurak banatu dira”**

de. Askok lagundu zigun gure erronkak bideratzen. Kasu honetan ere, administratiboki bitan zatitua egoteak eragin zigun. Irtetea baimentzen hasi zirenean, egoera kafkianoa bizi izan genuen. Biztanleriaren kopuruaren arabera Usurbil aldeko zubietarrak irten zitezkeen, Donostia aldekoak ez. Hasieratik saiatu ginen onartu zezaten Zubietan 500 biztanleko herri bezala. Baina kasu berezi horretan ere ez zuten onartu

Zubietan herri bateratu gisa.

**Administratiboki bi udalerritan zatitua egoteak dakarrenean adibide argia zalantzarik gabe. Aurreko legealdi amaieran, hitzarmen bat adostu zuen Herri Batzarrek bi udalekin, zerbitzuen koordinazioa hobetzeko, besteak beste. Zer garapen izan du urteotan?**

**H.A.:** Historikoki kaotikoa izan da gai hau. Farola bat matxuratu zenean ez zenekien nora deitu. Hitzarmen honek onura asko ekarri ditu. Nolabait, udal bakoitzak bere gain hartzen dituen ardurak banatu dira.

**Zatiketa hau gaitzizkoak erronka izaten segitzen du, Batzar Nagusietara egin zuten bisitan argi geratu zen moduan.**

**J.A.:** Gipuzkoako Batzar Nagusietatik jaso genuen deia, tokiko entitate txikien araudia aldatu nahi zutela esanez. Zubietan hortik kanpo zegoela ikusi zuten. Araudi horrek zioen auzoak udalerririk izan behar duela, baina Zubietan Gipuzkoan eta Euskal Herrian bi udalerririk izan zitezkeen dagoen bakarra da. Kasu hau ez dute aurreikusia. Horregatik, araudi horretan Zubietan nola txertatu, araudia aldatzeko prozesu horretan deitu gintuzten. Joan ginen. Bertan, batzarkide batek galdetu zigun ea ba ote genekien zein zen herriaren nahia. Bi galdeketa egin dira Zubietan; bat 1986an Lasarte herri bilakatu zenean eta 2017an Gure Eskuk antolatutakoa. Tokiko entitate txikien araudia aldatuz gero, biztanle kopuruaren baldintza bete eta herrian galdeketa egin genezake.

**Pandemiak Zubietan eragindako geldialdia aipatu duzue lehen. Baina garai hark ekarri zuen lanketa interesgarrikerik ere; Usurbilgo Hiria Antolatutako Plan Orokorren testuinguruan egin zen “Eta Zubietan zer?” prozesua. Zer balantze egin dezakezue saio haietaz?**

**H.A.:** Hasieratik asko eskertu genuen prozesu hau egitea eta horretarako gu kontuan hartzea. Azkenean, hiru entitate inplikatuak parte hartu genuen (Herri Batzarrek zein Usurbil eta Donostiako udalek) eta oso interesgarria egin zaigu ere herriaren diagnosi bat egin eta etorkizuna marrazteko, herri-tarrek Zubietarekiko dituzten nahiak ezagutzeko. Parte hartze nahiko txukuna izan zen. Gai asko jorratu ziren: mugikortasun aktiboa, tokiko produktuen sustapena, energiaren gaia, etxebizitzak...



# “Ekarpenen bat egin nahi duenak, Herri Batzarra entzuteko prest egongo da beti”

**NOAUA!** Zubietak baditu hainbat herri eragile, elkarte. Pandemiak baldintzaturiko legealdi honetan nolakoa izan da herri bizitza?

**Haritz Arrizabalaga:** Legealdiko erronken artean, herriko taldeen arteko kohesioa sustatzea finkatu genuen, herri giroa bultzatzea. Egia da pandemiak frenatu zuela baina erronka horrek hor jarraitzen du. Datorren taldeak ere buruan du helburu hau.

**Jon Arroyo:** Horri lotuta, haurrak Eskola Txikiko ibilbidea amaituta, Usurbilera edo Landaberrira doaz ikastera, eskolaz kanpoko ekintzak ere han egiten dituzte. Horrek arratsaldeetan gazteak Zubietatik atera egiten ditu.

**Belaunaldi berria nola lotu herrira, hor beste erronka ezta?**

**H.A.:** Zubietako eskolatik atera eta ikastetxe handiagora joaten direnean bizitza han egiten hasten dira. Gaztetan Lasarten edo Usurbilen egiten dute kua-drilla. Ondorioz, geroz eta bi-



Aurreko legealdian, talde hauxe izan zen hautatua.

## HERRI BATZARRA

**“Kaxkape herritar guztientzat txoko goxo bat izaten saiatu gara. Legealdi honetan kudeaketa hobea izan dadin saiatu nahi dugu”**

zitza gutxiago egiten dute Zubietan. Landu nahi genukeen gaia da.

**Kaxkape beste berrikuntzetako bat, herriari irekitzeko egin duzuen apustua.**

**H.A.:** Erronka dugun kultur-etxea izan bitartean, Zubietan jendea gustura egoteko bilgune bila, Kaxkape jendeari irekitzea pentsatu genuen. Herriar guztientzat txoko goxo bat izaten saiatu gara. Legealdi honetan kudeaketa hobea izan dadin saiatu nahi dugu.

**J.A.:** Orain arte gazteek erabili izan dute gehien. Pilota partidak, filmak ikusteko elkartzeko dira, proiektorea dagoela baliatuta. Bestalde, Herri Batzarren berri emateko sare sozialak ere jarri genituen martxan.

## Hauteslekua Kaxkape

Bide batez, Kaxkape aipatu dugunez, bertan kokatuko da estreinakoz, Herri Batzarra berritzeko maiatzaren 28ko bozketa eguneko hauteslekua. Zergatik aldaketa hau?

**J.A.:** Beti egin izan da Herri Batzarreko aretoan, Alamandegin. Bozkatzeko erraztasunak emateko, bozkatzerakoan irisgarritasuna bermatzeko egin da leku aldaketa.

**H.A.:** Maiatzaren 28ko bozketatik osatuko da Herri Batzar berria. Herri batzarrak aukeratu du bere alkatea.

**Lau urteotako herritarrek bidelagun izan nahiko dituzue aurrerantzean ere?**

**J.A.:** Ekarpenen bat egin nahi duenak Herri Batzarra entzuteko prest egongo da. Eskerrak eman aurreko Herri Batzarri, orain arteko lan taldeari eta bereziki Inaxio Usarraldei. Zubietan erroldatua egon gabe, egin duen lanagatik. Guretzako seigarren batzarkidea izan da.

## Hiru hautagai berri

**NOAUA!** Zerk animatu zaituzte Herri Batzarreko kide izatera?

**Nekane Zaldua:** Beti ezagutu izan dudalako ahal zen moduan norbait herriaren alde lanean. Bizitza pertsonalgatik batzarkide izateko proposatu arren, ezetz esaten nuen. Oraingoan taldearengatik animatu naiz. Lanerako giroa ikusi dut eta horregatik animatu naiz, uzten diguten heinean, gauzatxoak egitera.

**Josune Iparragirre:** Beti ikusi dugu norbait Herri Batzarrean. Oso oso figura garrantzitsua da Herri Batzarra nire

ustez, herritarren ahotsa entzuteko. Bi udalerrien artean banatuak egon eta horri aurre egitea lan nekeza den arren, herri bakarra gara, denok zubietarrrak gara.

**Zer da Zubietan bi udalerrien artean banatua egotea zuentzat?**

**N.Z.:** Oso oso gaizki daramat. Ni donostiarra naiz. Ez naiz batere identifikatzen. Trabak besterik ez dituzte jartzen. Konplexuagoa da tramiteak egitea.

**Herri Batzarrak zubietarren bizimodua errazten, hobetzen lagundu dezakeela uste duzue?**

**N.Z.:** Pausoak egin ditzake, gero seguraski trabak aurkituko ditugun arren. Zorionez Haritz eta Jon ditugu aurreko legealdikoak, ibilbide bat egin dute eta horrek ere asko lagundu digu hautagai gisa aurkeztera.

**Nondik hasi nahiko zenukete?**

**N.Z.:** Jakin, orain arte zer pauso dauden eginda, ze proiektu dituzten pendiente ikusi. Herria entitate ezberdinek osatzen dute, eta haiekin hartueman sendotu beharko dugu.

**J.I.:** Herriak zer behar dituen ikusi, herriak zer kezka dituen ikusi, horri erantzunez lan egi-

tea. Azpimarratu nahi nuke deia jaso genuenean Jonen eta Haritzen prestasuna ikusita eta haiei esker animatu gara parte hartzera; batetik, berriak badutelako esperientzia honetan eta oraindik ilusio-natuak daude. Gure ilusioari batuta zerbait egiteko bidean jarriko gara. HAPO-ari lotutako prozesuan parte hartu genuen. Hor badugu helduleku bat, abiapuntu bat, herriaren hitza.

Ateak beti zabalik izango ditugu herritarrentzat, berriak nahiak, kezka edo proposamenak entzuteko.



## II. Txalaparta Festa, iruditan



Txalapartaren eta bestelako instrumentuen doinuak nagusitu ziren aurreko larunbatean. Jexux Artze elkartearen ekimena igandean amaitu zen, Peru Galbeteren saio bikoitzarekin. Bideo eta irudi gehiago noaua.eus web orrialdean eta gure sare sozialetan.

### Usurbilgo altxorrak ezagutzen

Usurbilgo kultur ondarea ezagutzeko aukera bikaina asteburuetan 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatuarekin. Apirilean hasi ziren aste-bukaeretan herriko ondarea ezagutzeko bisita gidatuak egiten. Azkena pasa den aste-buruan izan da.

Usurbil beti izan da Euskal Herriko kultur-gune erreferen-

tzialetako bat eta bere lekua irabazi du Euskal Herriko kulturaren mapan. Kanean, lehen-go zein oraingo izen handiko sortzaileen lanak eta ondare aztarnak daude nonahi. Ondare hori ezagutzeko aukera izango da oraindik ere maiatzeko azken asteburuan.

Izen-ematea web orrialde honetan: [650usurbilbizi.eus](http://650usurbilbizi.eus)



Bisita gidatuak egiteko aukera zabalik izango da maiatzean zehar.



## Lanbide Eskolak ostalaritzako goi-mailako zikloa eskainiko du datorren ikasturtean

**M**aiatzaren 8an hasi da 2023/24 ikasturteko Lanbide Heziketako aurrematrikula aldia eta maiatzaren 26ra arte luzatuko da. Aurtengo eskaintzan, urte luzeetako ibilbidea duten zikloez gain, Usurbilgo Lanbide Eskolak hainbat berrikuntza gehitu ditu eskaintzan. Orain arteko bost familia profesionali, Informatika eta Ostalaritza familiak gehitu dizkiete. Goi-mailako 3 ziklo berri dituzte eskaintzan: Web Aplikazioen Garapena, eta Plataforma-Anitzetako Aplikazioen Garapena informatika arloan; eta Jatetxe Zerbitzuetako Zuzendaritza ostalaritzan.

Ostalaritzako lehen goi-mailako ikasketa publikoak izango dira Gipuzkoan. Beste lurraldeetan ez bezala, Gipuzkoan orain arte sare publikoan ez da eskaini alor honetako ez erdi-, ez goi-mailako ziklorik, beraz arlo hauetan prestakuntza jaso nahi izan duten ikasleek sare pribatura edota beste lurralde batera jo behar izan dute. Oinarrizko Lanbide Heziketan bada eskaintza publikoa, hain zuzen Usurbil eta Pasaian, eta ibilbide horri eman nahi dio jarraipena eskaintza berriak.

### Zikloaren xehetasunak

Sukaldariak eta zerbitzariak



Ostalaritzako lehen goi-mailako ikasketa publikoak izango dira Gipuzkoan.

### OSTALARITZA ZIKLOA

**“Zikloak jatetxe baten kudeaketa du helburu: bezeroen arreta, menuen elaborazioa, maître eta sommelier lanak, hornitzaileen kudeaketa...”**

badira ere ostalaritzan orokorrean ofizio ezagunenak, askoz ere zabalagoa da sektore honen lan esparrua. Zubietan eskainiko den zikloak jatetxe baten kudeaketa du helburu:

bezeroen arreta, menuen elaborazioa, maître eta sommelier lanak, hornitzaileen kudeaketa... jatetxe baten martxa egokia bermatzeko behar diren gaitasunen lanketa, azken batean. Sare publikoa hornitzeko menu berria, baina orain arteko sustriak galdu gabe, erronketan oinarritutako prestakuntza, talde lana eta gaitasun pertsonal eta profesionalen garapena bilatzen du.

Informazio gehiago [www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus) web orrian edota 943 364 600 telefono zenbakian.

## Udarako eskubaloi kanpua antolatu du Usurbil Kirol

### Elkartekak

2023an Usurbil Kirol Elkartekak 60 urte beteko ditu eta azken urte hauetan, Usurbilen eskubaloiak duen arrakasta ikusirik, uda honetan eskubaloi kanpua antolatzea erabaki du klubak. Eskubaloi kanpua, Usurbilgo Oiarde kiroldegian izango da ekainaren 22, 23, 26, 27 eta 28 egunetan izango da, goizeko 09:30etik 12:30era. Ura eta hamaiketako norberak eraman beharko du.

### Epemuga, maiatzak 26

Kanpusean eskubaloiarekin erlazioatutako ariketa eta jolas desberdinak egingo dituzte haur eta gazteek, baina baita beste zenbait jarduerare. Eskubaloi kanpua, LH3, LH4, LH5, LH6, DBH1 eta DBH2ko umeei eskainiko diete. Ekintza batzuk, adin guztiak elkartuta egingo dituzte eta beste batzuk adin-taldeka.

Eskubaloi kanpus honetako izen-ematea egiteko, honako formulario hau bete beharko dute interesadunek: <https://forms.gle/iln-UTx8ErXXeYxZX8> eta 40 euroko transferentzia egin beharko dute hurrengo kontu korrontean: ES80 3008 0259 1747 4227 6324. Familia bereko anai-arreben izen ematearen kasuan, bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu. Epemuga maiatzaren 26a izango da.

### Harremanetarako

Edozein zalantza izanez gero, Usurbil Eskubaloi Kirol Elkarteko zuzendari Jon Aizpurua Cansecorekin harremanetan jarri: 688 63 14 55 telefono zenbakian edota posta elektronikoki bidez, [usurbilkirolelkartea@gmail.com](mailto:usurbilkirolelkartea@gmail.com) helbidean.

## Etxeko garbikariak aztergai Santuenean

Etxea garbitzeko erabiltzen diren garbikariak aztertu eta aukera jasangarriagoak aukeratzen ikasi zuten ostiral arratsaldean Santuenean. Dozena bat auzotar elkartu ziren gaiari buruz ikasteko asmoz.



Dozena bat lagun batu ziren Santuenea elkartek antolaturiko ikastaroan.

# Amaiur Caballero: “Puerto Ricon bizitzea ez da batere erraza”

**K**aribeko giro ederrak eta bizimodu ezberdinak ezagutzeko nahiak eraman zuen Amaiur Caballero duela hilabete batzuk Puerto Ricora. Ikasketak amaitzeko ez zaio gehiegi geratzen eta unibertsitateak hala eskatuta, kanpora joan da bizitzera hilabete batzuk. NOAUA!rekin izan da herritarra.

**NOAUA! Puerto Ricon zaude hilabete batzuetarako. Noiz joan zinen? Zuk aukeratu zenuen herrialde hori?**

**Amaiur Caballero:** Humanitate digital globalak izeneko ikasketak egiten ari naiz Mondragon unibertsitatean, eta bertan, denboraldi bat kanpoan egitera behartzen gaituzte. Praktikal-dia edo egonaldia izan daiteke, bakoitzak nahiago duena. Egonaldiaren aldeko apustua egin nuen eta eman ziguten zerrrendatik gehien gustatzen zitzaidan lekua Puerto Rico zen. Eguraldi ona egiten du, hondartzaz beteta dago eta giro zoragarria daukate. Ia lau hilabete daramatzat bertan jada.

**Aukera zabala zeneukan hau-tua egiteko?**

Europan leku asko nituen aukeran, baina urrunago joan nahi nuen. Europatik kanpo Mexiko, Kolonbia, Puerto Rico edota Taiwan nituen aukeran.



“Humanitate digital globalak izeneko ikasketak egiten ari naiz”.

## AMAIUR CABALLERO

**“Iritsi eta hirugarren egunean nik neuk ere abeslari ezagun bat ikusteko aukera izan nuen kalean: Rauw Alejandro”**

Kolonbia eta Puerto Ricoren artean zalantzan nengoen, baina

azkenean Puerto Rico aukeratu nuen.

**Ahizpa Brasilen izan da pare bat alditan. Harek kontatutako istorioek animatu zaituzte latinoamerikara joatera?**

Hori izan zen motibazio nagusia Europan ez geratzeko. Europan gure bizimoduaren oso

antzeko zerbait aurkituko nuela iruditzen zitzaidan eta nik zerbait ezberdina nahi nuen.

**Reggetoi musikaren sehaska izan daiteke Puerto Rico. Dantzatzen ikasten ari zara?**

Esnatzen naizenerako kalean autoak entzuten ditut musika topera jarrita. Hemen denek ezagutzen dute reggetoia abesten duen ezagunen bat edo beste.

Iritsi eta hirugarren egunean nik neuk ere abeslari ezagun bat ikusteko aukera izan nuen: Rauw Alejandro. Lemoizko klasekide batekin etorri naiz hona, eta ikusi genuenean guretzat oso momentu berezia izan zen. Nahi gabe aurkitu genuen kalean. Denei kontatu genien ikusi egin genuela, baina inor ez zuen harritzen horrek. Oso ohituta daude pertsona hauek kalean ikustera.

Etxean reggetoia dantzatzea gustuko dugu, baina hemen oraindik eta gehiago ikasten ari gara.

**Ikasle-egoitza batean edo pisan bizi zara?**

Hiru solairuko etxe bat da eta solairu bakoitzean lau pertsona bizi gara. Gure solairuan lehen aipatutako Lemoizko klasekidea eta Puerto Ricoko bi neskekin bizi gara. Oso gustura nago.

## “Herrialdean bidaiatzeko modu bakarra autoan ibiltzea da”

**NOAUA! Latinoamerikako herritarrak oso irekiak eta alaiak omen dira. Puerto Ricon zaudenetik halakorik sumatu al duzu?**

**Amaiur Caballero:** Bai, erabat. Eurekin harremantzea oso erraza da eta beti prest daude laguntzeko.

**Nolakoa da zure egunerokotasuna bertan?**

Normalean astelehenetik ostegunera klaseak izaten ditut, eta azterketarik egin ez badugu ere, lan dezente izaten ditut.

Zazpiak alderako ilundu egiten du, eta beraz, ordura

arte lanak egiten ditut eta ondoren, taberna batera joaten gara. Askotan musika egoten da zuzenean. Asteburuetan autoak alokatzen ditugu eta uhartea bisitatzen dugu. Garraio publikorik ez dago hemen, eta beraz, herrialdean bidaiatzeko modu bakarra au-

toan ibiltzea da. Hondartzan aldera joaten gara askotan, eta beste batzuetan barnealderan sartzen gara zonalde menditsuagora.

Bidaiatzen ez dugun asteburuetan parranda egiteko aprobetxatzen dugu denbora.



# “Janaria oso garestia da. Amerikako Estatu Batuetatik inportatzen dute ia dena”

**NOAUA! Puerto Ricotik kanpo beste herrialderen bat bisitatzeko aukerik izan duzu?**

**Amaiur Caballero:** Oraindik ez, baina Kolonbiara joateko asmoa dut klasekide batzuk bisitatzera. Pare bat asteko bidaiatxo bat izango da. Oraindik badut denbora, ekainaren 21 arte egon behar baitut hemen. Agian gero luzatzen saiatuko naiz esperientzia zertxobait. Estatu Batuetara hegaldiak nahikoa merke daude; New Yorkera hegaldi bat lor dezakezu 120 euroren truke. Aukeran nahiago dut Mexikora edo Dominikar Errepublikara joan, baina ikusiko dugu.

**Etxetik ere zerbait faltan botako duzu.**

Ez dut inolako beherakada emozionalik izan. Oso ondo ari naiz pasatzen hemen. Hala ere, batzuetan ikusten dut herrian gauzak antolatzen ari direla eta plan politikak egiten ari direla, baina orain hemen nago eta oraingoa aprobeixatu behar dut.

**Janaria eta janaria prestatzeko modua oso ezberdinak dira bertan.**

Banana prestatzen dute egin



“Esnatzen naizenerako kalean autoak entzuten ditut musika topera jarrita. Hemen denek ezagutzen dute reggetoia abesten duen ezagunen bat edo beste”.

## AMAIUR CABALLERO

**“Banana modu askotara prestatzen dute: frijituta, arroza eta babarrunekin nahastuta...”**

daitekeen modu guztietan: mofongo, frijituta, arroza eta

babarrunekin nahastuta... Le-kaleak eta arroza egunero jaten ditut. Kontua da hemen janaria oso garestia dela. Amerikako Estatu Batuetatik inportatzen dute ia dena eta oso oinarritzko elikagaiak janda bizi naiz orain.

**Esperientzia hau amaitzean zein dira zure planak?**

Ez daukat oso argi oraindik zer egingo dudana. Garbi daukat ikasten jarraituko dudala, baina ez dakit zein bide hartu. Etxetik kanpo bizi nahiko nuke, hori bai.

Oraindik urtebete geratzen zait ikasketak amaitzeko, eta hori egitean ikusiko dugu zer egin.


# “Ustelkeria izugarria da hemen”

**NOAUA! Bertakoek ere arazo bera izaten dute janaria eta bizimoduaren prezioarekin?**

**Amaiur Caballero:** Orokorrean, hemen bizitza ez dela batere erraza esango nuke. Garestia da eta horren ondorioz, ikasle guztiek ikasketak egiteaz gain, lan ere egiten dute. Ez nioke pobrezia ere deituko, baina lan asko egin behar da bizimodu txukun bat izateko. Jende askok ez du “modu ofizialean” lan

egiten. Egoera horren ondorioz, despulatze egoeran dago herrialdea. Jende asko Amerikako Estatu Batuetara joaten da lanera. Puerto Rico Estatu Batuen kolonia bat da, azken finean, eta hori nabari da. Gazte askok hemen egiten dituzte ikasketak eta ondoren, Estatu Batuetara joaten dira lan-baldintza duinagoen bila. Iritzi kontrajarriak entzun ditut gai horren harira. Batzuek uste dute diru gehiago irabazteak

ez duela zorientasunik ematen. Nire pisukideetako batek esan zidan ikasketak amaitzean alde egingo duela. Oso gustura dagoela hemen, baina ez duela lan on bat izateko aukerarik ikusten. Besteak ez dit ezer esan horri buruz. Ustelkeria ere izugarria da hemen. Fotokopia bat egitera joaten naizenean, zortzi egin balira bezala erakusten dute diru hori zuritzeko. Egoera horrelakoa da hemen.



“Puerto Rico Amerikako Estatu Batuen kolonia bat da”.

# Gaztetxoentzako jarduerak Aginagan

## Perli eta Koxkoloren "abentura zirrargarria"

Maiatzaren 27an 17:00etan hasita Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean. "Ikuskizun berri honetan, Perlik eta Koxkolo bidaia zoragarria biziko dute munduko hainbat uharte zeharkatuz. Istorio eta abentura liburuei omenaldia: Verne, Stevenson, Defoe... Abenturaz betetako ipuin musikatu dibertigarria, elkar hobeto ezagutzen eta gehiago maitatzen ikasteko. Haurren irudimena piztuko dugu eta familia giroan primeran pasako dugu". Antxomolantxa elkarteak antolatutako 4-7 urte arteko haurrei zuzenduriko emanaldiko sarre-ra doakoa izango da.

## Frontenis saioak

Ekainaren 1etik 21era izango dira LH 1-6koentzat, astelehen eta asteazken arratsaldeetan, 15:00-16:15 artean.



Perli eta Koxkolo Aginagako Eliza Zaharrera itzuliko dira maiatzaren 27an. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da "Abentura zirrargarria" izeneko saioa.

## GURASO ELKARTEA

**"Yoga, dantza eta antzerkirako plazak mugatuak dira"**

### Yoga, dantza eta antzerkia

Hiru diziplina hauek uztartuko dituen ekintza iragarri dute 4-12 urte artekoentzat

Aginagan ekainaren 22an, 23an, 26an, 27an, 28an, 29an eta 30ean, 10:00-13:00 artean. "Plaza mugatuak dira eta gutxi daude libre".

San Praixku guraso elkarteak antolaturiko ekimen hauek, maiatzaren 31 baino lehen eman beharko da izena: 695 723 192 (Aitziber).

## Ipuin kontalariak Sutegin

### Maiatzak 18, osteguna

■ 18:00 Ipuin kontaketa liburutegian HH4ko haurrentzat Miriam Mendozarekin.

### Maiatzak 23, asteartea

■ 18:00 Ipuin kontaketa HH5eko haurrentzat liburutegian, Ixabel Agirresaroberekin.

### Maiatzak 25, osteguna

■ 18:00 Ipuin kontaketa liburutegian 6 urtetik gorako haurrentzat, LH1etik aurrerakoentzat, Dorleta Kortazarrekin.



Dorleta Kortazar ipuin kontalaria maiatzaren 25ean hurbilduko da.

## Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak

### Baiez Hamahiru!

Horra Maripurtzil eta Peloziri, komuna garbitzeko prest. Berdin-berdinak ematen dute gure bi lagunek, ezta? Baina badira aldeak bien artean. Ea aurkitzen dituzun.

DEMÓN LANA DA-ETA

### Handienetik txikienera

Ordena itzazu komuneko paperak handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 8.

### Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek zentzua izan dezan.

### Denboraren dominoan

### Bakoitzari berea

Gezurra dirudi, zenbat tresna erabiltzen diren etxean garbiketarako. Hona hemen batzuk. Lotu gauza bakoitzari bere izena.

LANBASA ORBANA ERRATZA  
XABOIA ESKUJILA PALA GARBIGAILUA ASTOA PERTZA  
XURGAGAILUA BELAKIA ZAPIA KONKETA LISABURDINA  
ESKULARRUAK

### Itzala

Ai, gaixoa Peloziri. Usapal batek kaka egin dio leihoan eta garbitu beharra dauka. Piura harrigarria du, ezta? Baina lasai, ez da leihorik erorriko, eta eroriko baltitz are, ez litzakete larria izango, lurretik metro erdi eskasera baitago. Beno, beno, utz ditzagun azalpenak eta haira: zein da bere itzal zuzena? Bide batez, irudia MARGOTU.

### Sudokua

Bete itzazu sudoko honetako hutsuneak, LEIHOA hitza osatzen duten hizkiak (L, E, I, H, O eta A) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

A	H	O	L	I	E
L	I	E	H	A	O
H	L	A	E	O	I
O	E	I	A	L	H
E	O	L	I	H	A
I	A	H	O	E	L

### Mezu Gordea

Hizki-marrakiz alfabetoa erabiliz, eman irudi bakoitzari dagokien hizkia eta gure lagunek zer dioten asmatuko duzu.

ABCDEFGHIJ  
KLMNOPQR  
STUVWXYZ



**ETXEBIZITZA****Salgai****Alokairuan**

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Jarduera lizentzia duen pisua da, igo-gailua, bainugela, sukalde eta itxarongela barne. WiFi eta elektrizitatea barne. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622925562

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litzateke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683548749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarrerako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gurgil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m<sup>2</sup> garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarran. 687 406 209.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Zubietan etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu lanaldi erdian. 695 783 202.

Zaintzailea behar dugu astelehenetik ostiralera goizez eta larunbat arrataldetan pertsona heldu bat zaintzeko. Euskalduna bada hobea. 616273785

Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak eman-go dizkion pertsona baten bila gabilta. 608201745

Klase partikularrak emateko prest daudenen zerrenda osatzen ari da Udarragi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu asteburuetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari larunbat arrataldetan behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

**Lan eskaerak**

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo

etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingeleseko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsalde zaurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

**BESTELAKOAK**

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaiangoan galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzia genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaite-na dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzia eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

**Futbol partidak****Haranen:****Maiatzak 20, larunbata**

■ 09:15 Infantil neskek, finalerdiak:

Usurbil FT A-Oiartzun KE

■ 10:30 Kadete mutilak:

-Usurbil FT B

-Antigua Luberrri KE B

■ 12:15 Kadete preferenteak: Usurbil FT-Zestoa

■ 16:00 Jubenil mutilak:

-Usurbil FT

-San Marcial CD C

■ 18:15 Preferente neskek, igotzeko kanporaketa:

Usurbil FT-Oiartzun KE C

**Futbol partidak****Kanpokoak:****Maiatzak 19, ostirala**

■ 21:00 Preferente mutilak, Trintxerpe Pasaian:

-Sanpedrotarra FE

-Usurbil FT

**Futbol partidak****Kanpokoak:****Maiatzak 20, larunbata**

■ 10:00 Kadete neskek,

Debako Errotazarren:

-Amaika Bat KE

-Usurbil FT

■ 11:00 Infantil mutilak,

finala Arrasaten:

Arrasate CD A-Usurbil FT

■ 15:30 Erregionalak,

Lasarte-Oriako Michelinen:

-Ostadar SKT B

-Usurbil FT B

**Maiatzak 21, igandea**

■ 15:30 Jubenilak, Irungo San Jose Obreron:

-Dunboa Eguzki CD

-Usurbil FT B

**Pilota partidak****Maiatzak 19, ostirala**

■ 17:30 Alebinak,

2. Mailako partidak

Aginagako frontoian:

Pagazpe 2 - Abantzu 1

**Jugatx Agirre,****lehia bizian**

Jugatx Agirre Euskal

Herriko 14. Bakarkako

Sega Ligan ari da parte

hartzen. Hiru saio izango

ditu asteotan. Lehenengo,

iragan larunbatean

Etxalekun. Datozen biak:

■ Maiatzak 21 igandea,

12:00etan Hernanin.

■ Ekainak 3 larunbata,

17:00etan Altzon.

**Zorionak Naiara!**

Maiatzaren 20an, 12 urte

egingo dituzu!!! Zirkua egiten

ospatuko dugu zure eguna!!

Prestatu merienda goxo-goxoa

eta denok batera ospatuko

dugu, merezi duzulako!!

Txokolatzeko 12 muxu handi

familia osoaren partez!!

**Zorionak Peru!**

Etxeko guztien partez. Asko

asko disfrutatuko eguna. Asko

maite zaitugu.

**Heriotzak****Manuel****Alvarez Aller**

Maiatzaren

14an hil zen,

65 urterekin

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 18** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 19** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 20** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 21** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Astelehena 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 23** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 24** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Osteguna 25** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 26** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 27** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 28** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ  
GOMEZ BRAVO, MARINA  
Kale Nagusia, 14 Hernani  
943 55 48 92

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

# Agenda maiatza

## 19 ostirala

- Joseba Aierberen erakusketa Artzabal taberna-jatetxean, maiatza amaierara arte.
- Sagardo dastaketa Artzabalen 19:00etan. Antolatzaileak: Euskal Sagardoa, Artzabal.

## 20 larunbata

- Erakusketa Artzabal taberna-jatetxean Joseba Aierberen eskutik.
- Adrian Zelaiaren hitzaldia Udarregi ikastolako jangelan. 11:00etan hasita.

## 21 igandea

- 40. Sagardo Eguna | 11:00 Botatzaileen ar-gazkia. 11:30 Irekiera. 15:00 Botatzaileen bazkaria. 17:00-20:00 'Matraka' Elektrotzaranga kaleetan zehar.
- Erakusketa Artzabal taberna-jatetxean Joseba Aierberen eskutik.

### Datozenak

#### Sareren mobilizazioa

Maiatzaren 26an, Sarek deitutako ohiko elkarretaratzea 20:00etan Mikel Laboa plazan.

#### Jai Batzordearen deiak

##### Txupinazorako hautagaiak

Ekainaren 29tik uztailaren 3ra ospatuko diren herriko festei hasiera nork emango dien proposatzeko aukera duzue maiatzaren 23ra arte udaletxean, Potxoenean, Sutegin eta Oiardon.

##### Egitaraua diseinatzeko lehiaketa

Datozen herriko festen berri emango digun egitaraua diseinatzeko lehiaketa ere iragarri du Jai Batzordeak. Maiatzaren 23ra arteko epea izango dute interesdunek txapelketa honetara lanak aurkezteko. Diseinu lanari dagokionez, ohi bezala, lehenbizi Potxoenean egitarauko testua eskuratu beharko da edo bestela [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus) helbidean galdegin. Informazio gehiago: 943 377 199 / [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus)

#### Kantu jira

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak deitutako kantu-jira maiatzaren 27an irtingo da, eguerdiko 12:00etan, Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka.

## Indarkeria sexistarik gabeko gunea jarriko dute Sagardo Egunean

Emagin elkarteak postu bat jarriko du, udalaren eskariz, indarkeria sexistaren inguruan kontzientzia hartzea bultzatzeko: Mikel Laboa plazaren goiko aldean jarriko dute.

Emagin elkarteak indarkeria sexistarik gabeko gunea jarriko du Sagardo Egunean, udalaren eskariz: Mikel Laboa plazaren goiko aldean jarriko dute, 18:00etatik 23:00etara. "Gunearen helburua da jai giroan ere indarkeria sexistaren gaia ikusaraztea eta herritarrek kontzientzia hartzea. Emagin elkarteak kideak une oro izango dira gunea dinamizatzen, bertaratutakoei aholkularitza ematen eta zalantzak eta kezak argitzen", udalak ohartarazi duenez.

Jai giroan indarkeria sexistaren gaia ikusarazteaz eta kontzientzia hartzea bultzatzeaz harago doa Emaginek eskainitako zerbitzua. "Babes eta elkartasun gunea izango da, indarkeriari aurre egiteko bitartekoak erraztuko dituen erreferentziatzeko leku izateko bokazioarekin. Guneak, horrez gain, erasotzaile izan daitezkeenei dena libre ez dela eta erasorik balego erantzuna izango duela ohartaraztea ere badu helburu".

Emakumeen ahalduntzeari begira, "euren burua defendatzeko duten gaita-



Mikel Laboa plazaren goiko aldean jarriko dute, 18:00etatik 23:00etara.

sunaz jabeaztea eta maitasun erromantikoaren eredu zalantzan jarrita plazean oinarritutako harreman osasuntsuak bultzatzea ere landuko dute", dio Usurbilgo Udalak.

#### Materiala eskuragarri

Era askotako materiala eskainiko dute Sagardo Egunean, indarkeria sexistarik gabeko gunean. Emagineko kideek nabarmendu dutenez, "gunearen publiko hartzailea 12 urtetik gorakoa da: bertako materiala eta zerbitzua adin horretatik goragoko pertsoneri dago zuzendua".

**USURBIL DÖNER KEBAB**

843 675 265  
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB

Borda Berri Kalea, 5

**Kim**  
MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**İnaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

**600 024 825**



# URDAIRA

## Sagardotegia

**AGINAGA**  
**943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Untarrilaren 19tik maiatzaren 7ra  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan  
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com)



# ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



# SAIZAR

Sagardotegia

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



943 37 39 95



# SAGARDOTEGIA

## aginaga

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10  
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
[info@aginagasagardotegia.com](mailto:info@aginagasagardotegia.com)  
[www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea





# Kanpaldiak uztaila eta abuztuan

astelehenetik-ostiralera

09:00-14:00

8-16 urte bitartean

**RESERBILAN!**



erreserbak: 666 607 447